

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Paskual Uribe Jaio

*Durango,
Bizkaia (1926)*

Aurkibidea



Biografia



1926an jaio zen [Eguzkitzaerdikoa](#) baserrian. Bere aita eta aitita ere bertakoak ziren eta ama Gibelenekoa (lurreta). Bi neba-arreba dira. Eskola ezberdinetara joan zen umetan: 1936ra arte Santa Ana oster, Eskola dominikalera, herri eskolara eta La Villara; ostean, negu bat Izurtzako eskolara joan zen eta baita Maristetara ere. Baserriko lanetan eta basoan aritu izan da beharrean. [Saizabal](#) baserriko [Josefina Agirregaz](#) ezkondu eta 3 seme-alaba izan zituzten. 2010eko urtarilaren 1etik Tabiran bizi dira, Eguzkitza baserria bota egingo dute-eta.

Zintak

DUR-008

- **Proiektua:** Durangoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2010-01-08
- **Iraupena:** 126 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

DUR-009

- **Proiektua:** Durangoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2010-01-08
- **Iraupena:** 76 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

DUR-056

- **Proiektua:** Durango 1936
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elkartea, Durango 1936
- **Data:** 2013-05-21
- **Iraupena:** 23 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elkartea, Durango 1936
- **Emalea:** Elkartea, Durango 1936

Pasarteak

1. Eguzkitza auzoa Buztin Herrian zegoen

- **Erref:** DUR-008/002
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:00:30. **Bukatu:** 00:03:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

<p>Jatorria. Eguzkitza auzoak hiru izen ezberdin izan ditu azken 15 urtetan. Buztin Herri esaten zioten euren auzo eta inguruei, Abadiñoraino, bertako lurrek buztin asko dutelako. Buztin horrekin teilak egiten zituzten, goiko mendietan batutako ote egurrarekin berotutako labetan.</p>

2. Bideak, oinezkoentzako bideak eta galtzadak

- **Erref:** DUR-008/003
- **Iraupena:** 0:04:27. **Hasi:** 00:03:00. **Bukatu:** 00:07:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

<p>Antzina auzoetan bide asko zeuden, galduaz joan direnak. Oinezkoentzako bideak ere ugariak ziren; baserri bakoitzak zuen berea. Galtzadarik ez zuen ezagutu Paskualek.</p>

3. Auzoan ez dira baserri asko galdu

- **Erref:** DUR-008/006
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:12:02. **Bukatu:** 00:13:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>Auzoan ez da aldaketa handirik izan. baserri bakarra bota dute, Eguzkitza Zaharra. Hurrengo botako dutena Paskualen jaiotetxea izango da.</p>

4. Eskolan zigor gogorrak

- **Erref:** DUR-008/007
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:13:36. **Bukatu:** 00:16:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

<p>Santa Ana osteko eskolan dominikalean hasi zen, eta handik Kale Barrikora joan zen. Gero "La Villa"ko eskolan aldi bat egon zen gerra hasi zen arte. "La Villa"n "don Roman" maisuak ikasleak zigortzeko makilaz jotzen zituen.</p>

5. Dominikala, Izurtzakoa eta maristen eskolak

- **Erref:** DUR-008/008
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:16:34. **Bukatu:** 00:18:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

<p>Dominikalean hobeto irakasten zuten, baina jo, orduko denboran edozein irakaslek jotzen zituen bere ikasleak. Gerraostean Izurtzako eskolan eta maristetan ere ibili zen.</p>

6. Bonbardaketan, etxetik alde egin zuten

- **Erref:** DUR-008/009
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:18:23. **Bukatu:** 00:21:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

<p>Etxean neskame umezurtz bat zuten, eta bere neba militarra etorri omen zen arrebaren bila. Durango bonbardatu zutenean, Paskual Orozketara joan zen. Etxekoek gurdi birekin Maumarako bidea hartu zuten, baina buelta eman eta Mondrabasora joan behar izan zuten.</p>

7. Milizianoek hil zuten gizagaixoa

- **Erref:** DUR-008/011
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:22:33. **Bukatu:** 00:23:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

<p>Milizianoek Orozketako abadearen anaia hil zuten.</p>

8. Durangoko bigarren bonbardaketa

- **Erref:** DUR-008/013
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:27:06. **Bukatu:** 00:29:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Martxoaren 31n bonbardatu zuten Durango. Egun horretan, Paskual meزالagun izan zen Tabirako sierbetan. Mezatik etxera zihoazela, abioiak etorri ziren bonbak jaurtitzen. Aurreko irailean ere bonbardaketa txiki bat jasan zuen Durangok.</p>

9. Baserri ondoan bonbak jausi ziren

- **Erref:** DUR-008/014
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:29:42. **Bukatu:** 00:32:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

<p>Intxortatik ihes egindako bergarar batzuk egon ziren hilabete ugaritan Paskualen etxean. Baserriko lanetan laguntzen zuten. Baserri inguruan jausi ziren bonba batzuk.</p>

10. Teilatua hondatuta, baina etxea osorik

- **Erref:** DUR-008/015
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:32:51. **Bukatu:** 00:34:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Ezagun bat bonbetatik txiripaz libratu zenekoa. Berrogeitaka lagun egon ziren babestuta Eguzkitzan. Bonbak teilatua hondatu zuten, baina etxea osorik geratu zen. Andra Mariako eliza barruan, oraindik ere arrastoak ikusten dira.</p>

11. Ganaduak berriro etxera

- **Erref:** DUR-008/017
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:36:59. **Bukatu:** 00:40:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Nazionalak Garai aldetik sartu ziren. Milizianoek atzera egin zuten eta Paskualen etxeko ganaduak berriro etxeratu ahal izan zituzten.</p>

12. Norberak egindako babeslekuak

- **Erref:** DUR-008/018
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:40:20. **Bukatu:** 00:42:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Bernagoiti eta Gibelen egon zen frontea hiru astez. Etxearen kontra zeukaten ira-metan, aitzak aizkoraz egindako zulo batean gordetzen ziren. Beste baserri batean zanga bat egin zuten; pinu-enborrak gainean trabes jarri, tarteak lurrarekin bete eta azpian gordetzen ziren. Etxean gordeta egon ziren milizianoak gorriekin joan ziren.</p>

13. Laiaketa gutxi egin zuen Paskuak

- **Erref:** DUR-008/019
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:42:46. **Bukatu:** 00:46:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Paskuak bere bizi guztia baserrian eman du. Sei-zazpi behi edukitzen zituzten. Morroi edo neskameren bat ere izaten zen baserri gehienetan. Paskuak laiaketa ezagutu zuen, baina arlo txikietan bakarrik. Golde txiki bat moduko 'hesie' izeneko lanabesa izan zuten garai batean.</p>

14. Paskualen emaztea sega pikatzaile trebea

- **Erref:** DUR-008/020
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:46:26. **Bukatu:** 00:49:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

<p>Golde txiki baten antzeko 'hesie' izeneko lanabesaren ostean, goldea etorri zen. Idi edo behi gogorrik ez zutenek, lau behi jartzen zituzten goldeari tiraka. Belarra segaz ebakitzen zuten. Paskualen emaztea sega pikatzen oso trebea omen zen. Traktoreak.</p>

15. Babarrun asko ereiten zuten

- **Erref:** DUR-008/021
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:49:27. **Bukatu:** 00:52:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

<p>Eguzkitzakoak ez dira inoiz gari-lurrak izan. Kupoa entregatzearren ereiten zuten garia. Arto-baba ordea, asko ereiten zuten. Gogoan du 30 anega babarrun jasotako urtea. Gerraostean, babarruna ira metan ezkutatzen zuten. Amak gauez astoarekin joanda, jesuitei saltzen zizkien babarrunak.</p>

16. Otxandiora gauez olio bila

- **Erref:** DUR-008/022
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:52:30. **Bukatu:** 00:56:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Estraperlo garaian, amak Otxandiotik gauez olioa nola ekarri zuen azaltzen du Paskualek. Erositako zahia eta etxeko artoa ematen zioten ganaduari. Ama egunero jaisten zen esnearekin kalera.</p>

17. Jaiotarrak aitzindariak

- **Erref:** DUR-008/023
- **Iraupena:** 0:04:02. **Hasi:** 00:56:35. **Bukatu:** 01:00:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Garai batean, hamazortzi ugazaben lur sailak, Izurtzatik Abadiñoraino, erabili zituzten Eguzkitzakoak. Belar bolak egiten aitzindariak izan ziren Durangon.</p>

18. Laiaketan

- **Erref:** DUR-008/024
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 01:00:37. **Bukatu:** 01:02:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

<p>Laiaketa lana nola egiten zuten azaltzen du Paskuak.</p>

19. Narra eta beste tresna batzuk

- **Erref:** DUR-008/025
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 01:02:18. **Bukatu:** 01:05:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

<p>Narra zer zen azaltzen du. Beste tresna batzuk.</p>

20. Aitzur ezberdinak

- **Erref:** DUR-008/026
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 01:05:33. **Bukatu:** 01:07:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

<p>Aitzur ezberdinak zeuden. "Harraitzurra" batez ere bidegintzan erabiltzen zen. Aitzurrak lana ondo egiteko, garbi egon behar omen du.</p>

21. Triki-trakea eta burdinarea

- **Erref:** DUR-008/027
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 01:07:24. **Bukatu:** 01:10:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

<p>Sororako beste tresna batzuk, triki-trakea, burdinarea, goldea eta errobia aipatzen dituzte. Triki-trakea eta burdinarea zer ziren eta nola erabiltzen ziren azaltzen du.</p>

22. Uztarri zaharra egokitzen

- **Erref:** DUR-008/028
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 01:10:12. **Bukatu:** 01:11:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

<p>Izurtzan bazegoen uztargile bat, baina uztargile famatua Antzuolako bat omen zen. Behiak aldatzen zirenean, uztarri zaharra egokitu egiten zitzaien.</p>

23. Garo basoak

- **Erref:** DUR-008/029
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 01:11:38. **Bukatu:** 01:15:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

<p>Ganaduen azpitarako basotik garoa ekartzea garrantzitsua zen garai hartan. Garoa jaso eta gero basoak triki-trakarekin lantzen zituzten, eta sastrakak garbitu. Abadiñokoak Urkiola menditik ekartzen zuten garoa. Gurdian jaisten zuten errepide ondoraino, eta handik kamioiz etxera.</p>

24. Korta; Gurdi mota ezberdinak

- **Erref:** DUR-008/030
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 01:15:11. **Bukatu:** 01:18:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

<p>Paskuak dio lehenago urtean behin garbitzen zela korta (ukuilua), arbia ereiten zen garaian. Gernua ukuiluaren erdiko putzu batera joaten zen, gero handik ateratzeko. Gurdi lotua, gurdi bolantea eta arraia gurdia, ezberdinak ziren. Paskuak ematen ditu azalpenak.</p>

25. Gurdiaren gurpilak

- **Erref:** DUR-008/031
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 01:18:53. **Bukatu:** 01:20:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

<p>Etxeko gurdiaren gurpilen uhalak aldatu zituzten 1936. urtean. Hiru ogerleko ordaindu zutela gogoratzen du. Aitak Euskadiko diruarekin ordaindu zuen.</p>

26. Hika, zuka eta berorika

- **Erref:** DUR-008/032
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 01:20:22. **Bukatu:** 01:22:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Hika berbeta ez du gustuko Paskualek. Lehenago hika berba egitea astakeria zela uste omen zuten. Abadeari eskuan muin eman eta berorika zuzentzen zitzaaien.</p>

27. Garo lanak eta ganaduak baso garbitzaile onenak

- **Erref:** DUR-008/034
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 01:24:55. **Bukatu:** 01:27:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

<p>Baso lanetan ibilitakoa da Paskual. Gaur egun makinek egiten dute lan asko, baina pinua sartzeak ez duela merezi deritzo. Lehenago basoetan ganadua eta sega ibiltzen ziren, eta basoak garbi egoten ziren. Garoa hartzen zenean, herriko sailetatik baserritarrei 'txantela' izeneko sail bana ematen zion Udalak, eta basook garbi egoten ziren.</p>

28. Kupoaren eman beharra zegoen garaia

- **Erref:** DUR-008/036
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 01:27:37. **Bukatu:** 01:29:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Kupoaren garaian, aguazila etortzen zen aitorketak jasotzera. Baserritarrek gezurretan aritzen ziren. Imazen errotan entregatzen zuten kupoak.</p>

29. Zaintzaileei ziria sartzen

- **Erref:** DUR-008/038
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 01:30:26. **Bukatu:** 01:31:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Abastoseko estraperlo-zaintzaileei ziria zelan sartu zitzairen kontatzen du.</p>

30. Errazionamenduaren beharrik ez Eguzkitzan

- **Erref:** DUR-008/041
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 01:38:07. **Bukatu:** 01:40:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Errazionamendutik ez zutela etxerako ezer hartzen dio Paskuak. Bere emazteak dio hartzen zituztela gauza batzuk. Labesuan artoa eta ogia, biak egiten zituzten.</p>

31. Elurretan ehizan

- **Erref:** DUR-008/042
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 01:40:10. **Bukatu:** 01:44:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

<p>Behin elurretan ehizan ari zela, ia Guardia Zibilak harrapatu zuen. Bere lagun bat ere ia-ia harrapatu zuten.</p>

32. Guardia Zibilak lanean

- **Erref:** DUR-008/044
- **Iraupena:** 0:00:25. **Hasi:** 01:44:43. **Bukatu:** 01:45:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

<p>Guardia Zibilek baserrietan sinadurak eskatzen zituzten, kuartelean euren ibilbidea erakusteko.</p>

33. Basurdekumea eskuekin harrapatu zuen

- **Erref:** DUR-008/046
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 01:45:38. **Bukatu:** 01:48:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

<p>Paskual ehiztaria zenean erbia ugaria zen eta orain ezkutatu egin da. Basurdearekin alderantzizkoa gertatu da. Behin, apeak egiten zebilela, basurdekume bat eskuekin harrapatu zuen.</p>

34. Basurdekumea etxean hazi zuen

- **Erref:** DUR-008/047
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 01:48:43. **Bukatu:** 01:51:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Fauna » Natura » Basoko animaliak » Ugaztunak

Laburpena:

<p>Basurdekume bat eskuekin harrapatu ostean, txakurra baino hobeto hezi zuela dio. Urte eta erdi gobernatu zuten, eta gero txorizoak egin zituzten berarekin. Orkatzik ez zegoen garai hartan, bai ordea azeriak.</p>

35. Tiragomari trebea Paskual

- **Erref:** DUR-008/048
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 01:51:09. **Bukatu:** 01:53:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

<p>Katagorriak tiragomarekin harrapatzen zituen. Beti eramaten zuen tiragoma poltsikoan. Munduko tiragoma txapelketan parte hartutakoa da. Behin tiragoma apurtu eta zozoa nola hil zuen kontatzen du.</p>

36. Munduko tiragoma txapelketa

- **Erref:** DUR-008/050
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 01:53:46. **Bukatu:** 01:55:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

<p>Duela urte asko, munduko tiragoma txapelketan parte hartu zuen. Lehen aldia zen, eta hasiberriarena ordaindu zuen. Tiragomarako kotxearen gomak erabiltzen zituen.</p>

37. Kaletarren kontrako tiragoma-gerrak

- **Erref:** DUR-008/051
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 01:55:32. **Bukatu:** 01:57:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

<p>Kaletarren kontra tiragoma-gerrak egiten zituzten. Behin arerio bati ipurdian bala bat sartu zion. Borroka bukatu eta lagun izaten jarraitzen zuten.</p>

38. Bizikletan asun artera; Ezkurdiko frontoia

- **Erref:** DUR-008/053
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 01:57:13. **Bukatu:** 02:00:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:

<p>Bizikletarik ez zuen eduki, baina lagunarenarekin asun artera jausi zen batean. Idi-probetara ezkondu eta gero joan izan zen. Ezkurdiko frontoi zaharrean jokaturakoa da Paskual, baina bolalekuan ez.</p>

39. Garai bateko Durangoko jaiak

- **Erref:** DUR-008/054
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 02:00:13. **Bukatu:** 02:03:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Durangoko jaiak San Antonioak ziren. Izugarrizko su artifizialak egoten ziren. Jaietako ikuskizunak non kokatzen ziren azaltzen du.</p>

40. Paskual maitasuna aitortzen

- **Erref:** DUR-009/010
- **Iraupena:** 0:04:02. **Hasi:** 00:16:22. **Bukatu:** 00:20:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Ezkurdi ezagutu zuten elkar Josefinak eta Paskuak. Neska laguntzetik, Paskual bere lagun batekin bizikleta batean itzultzen zen etxera. Josefinari nola deklaratu zen azaltzen du.

41. Asteazken egun erdiz elkartzen ziren nobioak

- **Erref:** DUR-009/011
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:20:24. **Bukatu:** 00:23:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Nobioak igande arratsaldetan besterik ez zuten elkar ikusten. Mozkorraldi bat kontatzen du Paskuak.

42. Arreoa gurdi bitan

- **Erref:** DUR-009/012
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:23:08. **Bukatu:** 00:26:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

<p>Santa Anan ezkondu eta Txantelenean bazkaldu zuten. Donostia, Zaragoza eta Gasteiz artean eman zuten zortzi eguneko ezkon-bidaia. Arreoa gurdi bitan eraman zuen Josefinak. Amak gauza guztietatik dozena bana jarri zion. Gurdi batean altzariak eta bestean arropak eraman zituen.</p>

43. Arreoa eta dotea

- **Erref:** DUR-009/013
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:26:13. **Bukatu:** 00:28:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

<p>Altzariak non kargatu zituzten azaltzen dute. Arreotik aparte, 20.000 ogerlekoko ezkonsaria ere eraman zuen Josefinak.</p>

44. Paskual erromeriazalea

- **Erref:** DUR-009/014
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:28:30. **Bukatu:** 00:31:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Berrizko jaietara behin bakarrik joan zen Josefina. Aisialdia Urkiola eta Durangon pasatzen zuen. Paskual Santa Eufemiara hiru urtetan jarraian joan zen. Mañaria mozkor eta borrokalari herria omen zen Paskualentzako. Apatamonasterio, Berriz, Euba, Oiz eta Arrateko erromerietara joaten zen Paskual.

45. Goizeko seietako mezara

- **Erref:** DUR-009/015
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:31:17. **Bukatu:** 00:33:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Baserría » Baserriko lanak » Garia
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Josefina ez da inoiz zinemazalea izan. Goizeko seietako mezara joaten zen. Neguan "'galtzeskutia"rekin (gari azaoa) egiten zuten argia biderako. Kabildo baserriko eskailerapean abarkak aldatzen zituzten mezara joateko. Mezatik itzuli, ganaduaren jatekoa prestatu eta arratsaldea jai hartzen zuten.</p>

46. Gari-jotze sasoiko asteburu bat

- **Erref:** DUR-009/016
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:33:24. **Bukatu:** 00:35:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Baserría » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Gari-jotze sasoiko asteburu lanpetu bat azaltzen du Josefinak. Mezak latinez izaten ziren, eta abadeak bizkarra emanda ematen zuen meza. Eliza topetaraino betetzen zen. Paskual batzuetan Abadiñora joaten zen mezara.

47. Konfesatokiak eta adorazio mezak

- **Erref:** DUR-009/017
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:35:57. **Bukatu:** 00:38:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Sei konfesatoki zeuden elizan, eta jendea ilaran egoten zen konfesatzeko zain. Gizonak konfesatokiaren aurretik eta emakumeak aldamenetik aitortzen zituzten euren bekatuak. Adorazioko meza goizeko laueta ematen zuten.

48. Umea bataiatzearen erritua

- **Erref:** DUR-009/018
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:38:07. **Bukatu:** 00:40:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Umea jaio eta hurrengo egunean bataiatu behar izaten zen. Umea zeramana, aita, aitapontekoa eta amapontekoa joaten ziren elizara. Ama zortzi egunez etxetik irten gabe egon behar izaten zen. Irteten zenean, kandela batekin eta umearekin elizara sartu behar izaten zen. Bataiatzeko umea nola janzten zuten azaltzen du Josefinak.

49. Gaubeila, hobiratzea eta andabideak

- **Erref:** DUR-009/019
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:40:40. **Bukatu:** 00:43:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Norbait hiltzen zenean, auzokoak gauean etxera etortzen ziren. Ardo gozoa edan, arrosarioak errezatu eta txisteak kontatzen ematen zuten gaua. Abadea hildakoarekin kanposantura joateko ordaindu egin behar izaten zen. Hildakoa ez zen elizara sartzen; elizpean agurtzen zen. Andan eramaten zen gorpua kanposantura. Andabidea nondik zen azaltzen du Josefinak.</p>

50. Saizabal baserri independentea

- **Erref:** DUR-009/021
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:43:54. **Bukatu:** 00:45:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Inguruko baserriak Izurtza auzokoak ziren, baina Saizabal Durangokoa omen zen.

51. Aititak erosi zuen baserria

- **Erref:** DUR-009/022
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:45:12. **Bukatu:** 00:48:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Saizabal baserrria aititak erosi zion ugazaba elorriarrari. Aitita arotza zen, eta baserri zaharra konpondu zuen. Hileta-elizkizunaren ostean tabernan bazkaria izaten zuten.

52. Hiletarako eta ezkontzeko beltzez jantzita; Lutoa

- **Erref:** DUR-009/023
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:48:28. **Bukatu:** 00:51:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Beltzez janzten ziren bai hiletetarako eta baita ezkontzeko ere. Paskualen ezkontzako trajea harrezkero makina bat jaietan erabili izan dute mozturro gisa. Josefina ere traje beltzarekin ezkondu zen, besoetan loreak zeramala. Orduko lutoaren betebeharrak azaltzen dituzte.</p>

53. Kanpai-hotsak eta konjuruak

- **Erref:** DUR-009/024
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:51:20. **Bukatu:** 00:55:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Emakumeak ez ziren tabernetara sartzen. Durangon ez dute kanpai-hots berezirik, baina Abadiñon oraindik ere jotzen dituzte hildakoenak eta beste batzuk. Ume txikiak hiltzen zirenean, Abadiñon meza emateko ohitura zegoen. Trumoiaren aurkako konjuruak gogoratzen dituzte.</p>

54. Konbidatuen eguna

- **Erref:** DUR-009/025
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:55:20. **Bukatu:** 00:56:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Josefinaren etxean konbidatuen eguna Izurtzako Andra Mari eguna izaten zen. Santua ekartzen zuten etxera, eta dirua emanda hurrengo egunean entregatzen zen.

55. Aitonaren anaia abadea

- **Erref:** DUR-009/027
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:56:50. **Bukatu:** 00:59:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Aitonaren anaia batek bere ilobari opari emandako kaliza erakusten dute. Gaixotu zenetik meza etxean ematen zuen Paskualen laguntzaz.

56. Aitonaren ordezkoko abadea fusilatu zuten

- **Erref:** DUR-009/028
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:59:11. **Bukatu:** 01:01:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Arabako Gopegin eta Berrizen abade egondakoa zen aitonaren anaia. Gaixorik hil zen; eta bere ordezkoa zen Jose Sagarna gipuzkoar gaztea frankistek fusilatu zuten. Etxean duten kaliza Okarantzaneke seme batek egindakoa da.

57. Gabonetako eta Erramuetako ohiturak

- **Erref:** DUR-009/030
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 01:01:20. **Bukatu:** 01:04:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Lehengo Gabonetan, intxaur saltsa, konpota eta olio-aza beti jaten ziren. Gabon egunean, ogi pusketa bat gordetzen zen hurrengo urtera arte. Erramu egunean gurutzeak bedeinkatzen ziren, soroetan jartzeko.</p>

58. San Blasak Abadiñon

- **Erref:** DUR-009/031
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 01:04:50. **Bukatu:** 01:07:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Jai-giroa » San Blas
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>San Blas egunean Abadiñon zalditeria feria izaten zen. Biharamunean, San Blas txikin, ganaduen feria handia egiten zen. Gogoan du Josefinak San Blasetan Abadiñoko erromeriara bost egun jarraian joaten. Ijitoek zalditeria asko eramaten zuten.</p>

59. San Blasetan asto tratuan ijituekin

- **Erref:** DUR-009/032
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 01:07:16. **Bukatu:** 01:09:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Blas

Laburpena:

<p>San Blasetan etxeko asto zaharra ijitoei saldu zieten 1.000 erreale truke. Santa Agedan kantuan joanda dago Paskual.</p>

60. San Juan sua eta San Juan kantak

- **Erref:** DUR-009/033
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 01:09:37. **Bukatu:** 01:11:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

<p>San Juan sua beti egin izan dute, sorginak eta lapurrak erretzeko. Eta adartxo bat jartzen zuten etxeko atean, arrosa batekin-edo. San Juan suaren gainetik salto egiten zuten, eta bueltan jarrita kantuan.</p>

61. Sehaskak eta lixiba

- **Erref:** DUR-009/035
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 01:11:34. **Bukatu:** 01:14:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Lehengo sehaskak zurezko kutxak izaten ziren. Zumitzezko gurgildun batean hasi zituzten gure hiztunek euren umeak. Lixiba egin ondoren, izarak landan zabaltzen zituzten lehertzeko.

62. Arropak zeharo zuriak

- **Erref:** DUR-009/036
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 01:14:22. **Bukatu:** 01:15:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Baserri batzuetan arropak bereziki zuriak izaten zituzten.

63. Mendekuak auzoan

- **Erref:** DUR-056/001
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

64. Gerra hasi eta giputxak etxean errefuxiatuta

- **Erref:** DUR-056/002
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:01:58. **Bukatu:** 00:03:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

65. 1936ko Iraileko bonbardaketa eta fusilamenduak

- **Erref:** DUR-056/003
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:03:34. **Bukatu:** 00:04:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

66. Gerra garaia eta Martxoaren 31ko bonbardaketa

- **Erref:** DUR-056/004
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:04:54. **Bukatu:** 00:06:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

67. Familia etxetik kanpora

- **Erref:** DUR-056/006
- **Iraupena:** 0:05:14. **Hasi:** 00:07:47. **Bukatu:** 00:13:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

68. Gerraostean eskasia eta premiak laster agertu ziren

- **Erref:** DUR-056/007
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:13:01. **Bukatu:** 00:14:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

69. Frankistak Durangon sartu zirenean

- **Erref:** DUR-056/008
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:14:04. **Bukatu:** 00:15:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

70. Obusak baserrira

- **Erref:** DUR-056/009
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:15:22. **Bukatu:** 00:16:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

71. "¡Habla en cristiano!"

- **Erref:** DUR-056/010
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:16:26. **Bukatu:** 00:17:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

Laburpena:

72. Bonbak etxe inguruan

- **Erref:** DUR-056/011
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:17:10. **Bukatu:** 00:19:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

73. Soldaduskatik zelan libratu zen

- **Erref:** DUR-056/012
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:19:04. **Bukatu:** 00:22:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

Laburpena:

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-26

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com